



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2020ko ekainaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2020/85 Dekretua

2020/90 Dekretua

2020/91 Dekretua

2020/92 Dekretua

2020/95 Dekretua

2020/97 Dekretua

2020/99 Dekretua

2020/101 Dekretua

2020/104 Dekretua


2020/108 Dekretua

2020/110 Dekretua

2020/112 Dekretua

2020/113 Dekretua

2020/115 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2020/116 Dekretua	2020/117 Dekretua
2020/118 Dekretua	2020/120 Dekretua
2020/122 Dekretua	2020/125 Dekretua
2020/127 Dekretua	2020/129 Dekretua
2020/131 Dekretua	2020/133 Dekretua
2020/135 Dekretua	2020/136 Dekretua
2020/137 Dekretua	2020/140 Dekretua
2020/142 Dekretua	2020/143 Dekretua
2020/145 Dekretua	2020/146 Dekretua
2020/148 Dekretua	2020/150 Dekretua
2020/152 Dekretua	

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- 2020/02 KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 2 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
211.342.00.01	Frontoiaren alde bateko Kanaloia Aldatz.	500,00	4.602,84	5.102,84
221.920.10.01	Irunzubi Pabilioiko Argiteria	3.073,06	1.798,59	4.871,65
224.153.40.01	Ibilgailuaren Asegurua	600,00	98,20	698,20
226.920.00.99	Bestelako Gastu Orokorrak	5.000,00	2.000,00	7.000,00
421.414.00.02	Tolosaldeko Landa Garapen Elkarte	3.400,00	139,73	3.539,73
601.153.20.01	Inbertsioak	0,00	21.039,06	26.039,06
	<i>Elizako Eskaileretako Likidazioa</i>		5.204,22	
	<i>Yeregi, Elizako Eskaileretako Baranda</i>		7.696,57	
	<i>Signos Viales. Irunzubi Panela</i>		1.724,85	
	<i>Tarima</i>		6.413,42	
623.425.00.02	Instalakuntza Fotovoltaikoak		19.239,87	19.239,87
	<i>Eskola</i>		14.810,00	
	<i>Osasun Zentrua</i>		4.429,87	
GUZTIRA		12.573,06	48.918,29	61.491,35

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
410.000.00.99	E.J. Bestelako Transferentziak	0,00	17.884,91	17.884,91
	<i>Frontoiko Argik - 2019</i>		7.932,41	
	<i>Artxiboa - 2019</i>		4.840,00	
	<i>Liburutegia - 2019</i>		1.277,00	
	<i>Liburutegian Teknologi Berriak - 2019</i>		1.023,00	
	<i>EVE. Eskolan Fotovoltaikoa - 2020</i>		2.250,00	
	<i>EVE. Osasun Zentruan Fotovoltaikoa-2020</i>		562,50	
420.000.00.99	F.A. Bestelako Transferentziak	0,00	3.066,88	3.066,88
	<i>Euskera - 2019</i>		2.208,80	
	<i>Gazteria - 2019</i>		858,08	
870.000.00.01	Diruzaintzako Gerakina	77.332,38	27.966,50	105.298,88
GUZTIRA		77.332,38	48.918,29	126.250,67

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

LIZARTZAKO UDALAREN 2020-2022 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOARRAUTZEN DITUEN ORDENANTZA



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Idazkaritzak, 2020ko ekainaren 15an, txosten bat egin zuen, alderdi hauek aztertzeko: Lizartzako udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa arautzeko udal-ordenantza onartzeko erabili beharreko prozedura eta legedi aplikagarria. Txosten hori aztertuta;

Aztertuta, orobat, udal-zerbitzuek Lizartzako udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa arautzeko udal-ordenantzarako egindako proiektua —Alkatetzak 2020ko ekainaren 15ean eskatu eta Udal honetan 2020ko ekainaren 19an jasoa—;

Burututa legeak ezartzen dituen izapideak, eta kontuan hartuta Udalbatzaren eskumena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluei jarraiki, Udalbatzari proposatu zaio onar dezala ondoko

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea agiri honetan jasotzen den moduan:

LIZARTZAKO UDALAREN 2020-2022 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

ATARIKOA

Oinarrizko izaera duen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: “administrazioko organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, alde aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte, horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plan burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea”.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Dirulaguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Dirulaguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina dirulaguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Zentzu horretan, dirulaguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distorsio eta interfentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurrakusten du araudiak. Plan hori dirulaguntzak sortu aurretik egin beharko da.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak gin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu.

I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Lizartzako Udalak emango dituen diru laguntza, Lizartzako Udalean indarrean dagoen dirulaguntzak emateko Araudiaren, Diru Laguntzen Lege Orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

2. artikulua

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

Diru laguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

3. artikulua

Diru laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

4. artikulua



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzeta-hitzarmenak eginaz, diru laguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

5. artikulua

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

- Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna mermatu beharko dira, guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.
- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- Eraginkortasuna izatea jarritako helburuak lortzeko orduan eta efizientzia izatea bitarteko publikoak esleitzeko orduan, eta ebaluatu eta neurtu egin behar izatea bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.
- Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagudutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.
- Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:
 - * Plana termino sozialetan justifikatzea.
 - * Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
 - * Finantza gaitasuna.
 - * Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

6. artikulua

Dirulaguntzak emateko eskuduntza Alkateak izango du, eta beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa, indarrean dagoen eskuduntza udal araubidearen araberrako izango da. Beraz,

- Dirulaguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- Lizartzako Udalak hartarako onartutako aurrekontu arauetan jasotako terminoen arabera onartuko du gastua.
- Dirulaguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II KAPITULUA
PLANAREN EDUKIA

7. artikulua

Lizartzako Udalak eta bere menpeko erakundeek diru laguntzak emango dituzte urtero, ondoko lerro estrategiko eta helburu zehatzen baitan:

*** Lerro estrategikoa: 1. Gizarte Ekintza**

- Helburu estrategikoa:

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden herritarren gizarteratzea sustatzea.

Herriko emakumeen eta hirugarren adinekoen elkarteek jarduera parte hartzaileak, prestakuntza ematekoak eta ludikoak antola dezatela sustatzea.

Herri txiroenen garapenean laguntzea herritarren sentiberatasuna handitzeko ekimenak sustatuz eta bizi baldintza hobetzen laguntza elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako diru laguntzak emanez.

- Helburu zehatzak:

Gizarte zerbitzuetako baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden kasuei oinarrizko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak, norbanakoak eta familiakoak estaltzea.

Zailtasun edota gizarte arrisku egoera txikitzeko edo desagertzeko lan egitea.

Arazoak edo zailtasunak agertzea ekiditea, arrisku faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.

Jubilatuena elkarteak eta emakumeen elkarteak jarduerak egitea sustatzea eta egoitzarako erabiltzen dituzten lokalak mantentzen laguntzea.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

GKEi laguntzea beraien ekimen eta lankidetzan proiektuetan herri pobreentzako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

Auzolan bidezko ekimenak sustatzea, bizilagunen partaidetza sustatzeko laguntzak emanez.

- Exekuzio epea: Urterokoa
- Finantzario iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

*** Lerro estrategikoa 2. Hezkuntza sustatzea**

- Herrian hezkuntza berrikuntza sustatzea eta herritarrei zuzendutako kultur eskaintza hobetzea.

- Helburu zehatzak:

Euskal Herriko Unibertsitateak

8. artikulua

Plan hau eranskin batean egituratzen da, 2020 ekitaldirako aurrekontuan aurreikusitako jardueraren arabera.

Esleitutako zenbatekoak 2020ko ekitaldirako aurrekontuan onartutako diru-kopuruei dagozkienak dira. Hurrengo ekitaldietarako ez da aldaketa nabarmenik aurreikusten.

Eranskin horretan diruz lagundutako jarduera zerrendatu eta xehatzen da, departamentu emaileen arabera ordenaturik.

Eranskin honek aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzak ordenatzen ditu, irizpide hauen arabera:

- Departamentu emailea.
- Helburua. Dirulaguntzaren helburua zehaztuko da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.
- Kudeaketa mota. Dirulaguntza emateko aplikatu beharreko prozedura bereizten du (dirulaguntza izendunak, aurre deialdirik gabeko dirulaguntza zuzenak edo izengabeak, hitzartutako dirulaguntzak, norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzak).
- Zenbatekoa. Dirulaguntza bakoitzerako aurreikusitako kontsignazioa.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

III KAPITULUA

ONURADUNAK ETA DIRULAGUNTZA XEDE DIREN ALORRAK

9. artikulua

Udalak dirulaguntzak emango dizkie pertsoneri edo erakunde pribatuei, erabilera edo interes sozialeko jarduerak bultzatzeko edo udal eskumeneko helburu publikoen lorpena sustatzeko.

10. artikulua

Lizartzako Udalak dirulaguntzak emango ditu urtero, hainbat udal dirulaguntza lerrotan, ondorengo eskumenen arloan:

- .- Euskara
- .- Gazteria
- .- Gizarte Zerbitzuak
- .- Hezkuntza
- .- Kirola
- .- Kultura
- .- Nekazaritza eta abeltzantza

CAPÍTULO IV

FINANTZAKETA


11. artikulua

Lizartzako Udalak ematen dituen dirulaguntzak bere diru funtsez finantzatuko dira, dagokion ekitaldirako Udaleko Gastuen Aurrekontuaren IV kapituluaren kontura.

2020 urterako, hasieran aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa hau da: 17.560,00 €.

V. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA.
EMAITZEN AZTERKETA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

12. artikulua

Dirulaguntza bakoitzareneraginkortasun mailaren azterketa egoki bat egiteko, emandako laguntza kudeatzen duten sailek txosten edo memoria bat eskatuko diete horien onuradunei; txosten edo memoria horretan arrazoiturik agertuko da lortu nahi dituen emaitzak lortzeko garatu direnekintzen balioa.

13. artikulua

Zehazki, eta dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri zehatzek edo banakako hitzarmen edo akordioek gehitu dezaketenaren kalterik gabe, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- .- Helburua
- .- Dirulaguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea
- .- Dirulaguntzen zenbatekoa
- .- Dirulaguntzarekin egindako ekintza zehatzak
- .- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina
- .- Dirulaguntza ematen duen departamentuaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko gokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotasunari buruz.

14. artikulua


Hura izapidetzeko ardura duten sailek, aurreko artikuluan aipatutako agiriak ikusirik, dirulaguntzen likidazioa/justifikazioari buruz eta programa hori mantendu edo, hala badagokio, aldatu edo kentzearen egokitasunari buruz hartzen den erabakiarekin batera, dirulaguntza ematean emandako laguntzaren bidez lortu nahi zituzten helburuak egokiak izan direla eta lortu egin dituztela baloratu beharko dute.

15. artikulua

Gardentasunari dagokionez, lerro estrategiko bakoitzean emandako dirulaguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nork jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako ekintza.

CAPÍTULO VI

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN FINANTZA KONTROLA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

16. artikulua

Udaleko Kontu-hartzaitzak egingo du diruz lagundutako programen finantza kontrola; diruz lagundutako kopuruen benetako ordainketa datak, ordaintzeko bitartekoak eta dirulaguntza lortzeko onuradun bakoitzari eskatutakoa zuzen justifikatu dela aztertuko du.

17. artikulua

Aurrekoaren kalterik gabe, dirulaguntzak izapidetzeaz ardura duten administrazio unitateetako arduradunek, txosten bidez, espedientean jasota utziko dute garapen edo izapide fas edesberdinetan udal akordioak hartzeko legez eskatu daitezkeen betebeharrak bete direla (eskabideak onartzea, horiek baloratzea, emateko proposamena egitea eta laguntzen bukaerako justifikazioa eta likidazioa).

Horri buruz, Kontu-hartzaitzak fiskalizazio edo txosten ereduak egin ahal izango ditu, ematekoak diren dirulaguntzak kudeatzeaz ardura duten administrazio unitateek egin behar duten fiskalizazio eta kontrol lana errazteko.

VII KAPITULUA

PLANA EGIKARITZEKO ETA HURA AZTERTZEKO EKINTZEN KOORDIONAZIOA

18. artikulua

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Dirulaguntzen Batzorde Orokorra dagokion ebaluazioa egingo du. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan dirulaguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Dirulaguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra honako hauek osatzen dute:

- .- Alkateak
- .- Udal idazkari-kontu hartzailea

19. artikulua

Egindako ebaluazioren ondorioz jasotako ondorioen eta hurrengo Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunen berri emango du Alkateak.



LIZARTZAKO
U D A L A
G I P U Z K O A

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA	HELBURUA	HARTZAILEAK	DIRULAGUNT ZA MOTA	ZENBATEKOA (2020)	AURREKONTU APLIKAZIOA (2020)
Ihauteriak	Ihauteriak antolatzea	OTSOLAR DANTZA TALDEA	Izenduna	1.500,00	481.335.00.01.2020
Erromeri Eguna	Erromeri eguna	OTSOLAR DANTZA TALDEA	Izenduna	500,00	481.335.00.01.2020
Koroaren Emanaldiak	Emanaldien antolaketa	ISKANBILA-HOSTOTZA	Izenduna	1.000,00	481.335.00.01.2020
Nafarroa Oinez	Nafarroako ikastolak diruz laguntzea	NAFARROA OINEZ	Izenduna	150,00	481.335.00.01.2020
Herri Urrats	Iparraldeko ikastolak diruz laguntzea	HERRI URRATS	Izenduna	150,00	481.335.00.01.2020
Tolosaldeko Komunikabideak	Tolosaldean euskarazko hedabide eremua aldizkari eta web orria diruz laguntzea	TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	Hitzartua	3.200,00	481.335.00.01.2020
Harituz	Bertsoak	HARITUZ BERTSOZALE ESKOLA	Hitzartua	1.735,00	481.335.00.01.2020
Mendi Martxa	Mendi Martxaran antolaketa	PAGOZELAI ELKARTEA	Izenduna	2.500,00	481.335.00.01.2020
Eskolako Gurasoei diru laguntza	Eskolan haurrentzat ekintzak antolatzea	GURASO ELKARTEA	Izenduna	300,00	481.335.00.01.2020
Oporrak bakean programan baitan, haur Sahararik Euskal Herrira etorri ahal izateko gastuak diruz laguntzeko konpromezua hartzen du.	7 eta 12 urte bitarteko haurrak Saharar errefuxiatu kanpamendutetan bizi duten egoera gatazkatsutik urrunduz beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematea da eta bide batez, basamortuan udako bi hilabete horietan pairatzen den tenperatura altuetatik babestea	EUSKAL FONDOA	Izenduna	4.000,00	421.230.20.01.2020
Berdintasun Plana	Berdintasun plana burutzea	GIZARTE ZERBITZUAK	Izengabea	1.000,00	430.230.00.01.2020
Lizartzako Jai Batzordeen ekintzak diruz laguntzea	Jaien antolaketan parte hartze aktiboa bultzatzea eta herriko jaiak antolatzea	LIZARTZAKO JAI BATZORDEA	Izenduna	12.000,00	430.338.00.01.2020
Menditako dirulaguntza	Mendian burutuko diren lanan laguntza	LIZARTZAKO MENDI BATZORDEA	Izenduna	5.000,00	430.410.00.01.2020

BIGARRENA. Udal-ordenantza hori jendaurrean jarri eta interesdunei jakinaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta hogeita hamar egunez Udaleko iragarki-oholean erakutsaraziz, egoki irizten dionak gero Udalbatzak aztertu beharreko erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Aipatutako epean inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat joko da behin betiko, Udalbatzak berriaz erabakia emateko beharrik gabe.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

HIRUGARRENA. Ahalmena ematea alkate-lehendakariari gai honi lotutako dokumentu oro izenpetzeko.

BOSTGARRENA.- LIZARTZAKO ESKOLAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA

1. Kontratazioaren xedea: LIZARTZAKO ESKOLAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea.
2. Asebeteko den beharra eta helburua: LIZARTZAKO ESKOLAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea, Baldintza Plegu hauen arabera:

LIZARTZAKO ESKOLA ERAIKIN PUBLIKOAN AUTOKONTSUMORAKO HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Lizartzako Eskola eraikin publikoaren eraginkortasun energetikora bideratutako plaka fotovoltaikoak hornitu, instalatu eta konektatzea, horien muntaketa eta abiaraztea barne (dagozkion planoak erantsi dira).

Proposatutako ekipamenduek bete beharko dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak

I. ERANSKINEAN zehazten dira.

II. ERANSKINAREN bidez, proposamenaren datu teknikoak eskatzen dira.

Kontratu honen xede den horniduraren kodeketa, Europako Batzordearen CPV nomenklaturari (Kontratuen Hiztegi Komuna) dagokiona, 0933200-5 da: eguzki-instalazioa.

2.- APLIKAZIO-EREMUA

Instalazioek autokontsumo-erregimenean funtzionatu beharko dute, eta sarerako konexioa Iberdrolak zehaztutako puntuan egingo da.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanek erantsitako planoetan agertzen diren eraikinen sarera konektatutako autokontsumoko instalazio guztiak hartzen dituzte, bai eta haien osagai guzti-guztiak ere.

3.- ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA ETA BETETZE-MAILA:

Enpresa lizitatzaileri eskatuko zaie bakoitzak proposatutako elementu-ereduari buruzko ziurtagiriak aurkezteko, eta, dokumentu horietako edozein falta izanez gero, esleipen-prozeduratik KANPO geratuko dira.

Bereziki, dekretu eta arau hauek betetzea eskatzen da:

244/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena.

900/2015 Errege Dekretua, urriaren 9koa, energia elektrikoaren autokontsumoko hornidura- eta ekoizpen-modalitateen baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen dituena.

1699/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, potentzia txikiko energia elektrikoa ekoizteko instalazioen sarerako konexioa arautzen duena.

314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duena.

842/2002 Errege Dekretua, Behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena (2002-09-18ko BOE).

Iberdrolaren araudi partikularra, NI eta MT arauak.

- CE marka, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/95/EE Zuzentarauaren arabera, tentsio-muga jakin batzuekin erabiltzera bideratutako material elektrikoari buruz estatu kideek dituzten legediak hurbiltzeari buruzkoa.

UNE-EN 61730, 2006/95/EE Zuzentzararako harmonizatua, modulu fotovoltaikoen segurtasunaren kualifikazioari buruzkoa.

UNE-EN 50380 araua, modulu fotovoltaikoetarako datu-orrien eta ezaugarri-plaken informazioei buruzkoa.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

UNE-EN 61215 araua, Lurreko erabilerarako silizio kristalinozko modulu fotovoltaikoak (FV). Diseinuaren kualifikazioa eta homologazioa.

UNE-EN 62093: sistema fotovoltaikoen energia metatzeko, bihurtzeko eta kudeatzeko osagaiak. Diseinuaren kualifikazioa eta ingurumen-saiakuntzak.

UNE-EN 61683: Sistema fotovoltaikoak. Potentzia-egokitzailak. Errendimendua neurtzeko prozedura.

IEC 62116. Konpainia elektrikoen sarera konektatutako inbertsore fotovoltaikoak. Sarean uhartean sorrera prebenitzeko neurrietarako saiakuntza-prozedura.

4.- ZERBITZUAN JARTZEA ETA BERMEAK

Esleipendunak bere gain hartu beharko ditu instalazioaren administrazio-baimena lortzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak. Haren betebeharra izango da instalazioa zerbitzuan jarri dela eta autokontsumoaren administrazio-erregistroan inskribatu dela egiaztatzen duten agiriak lortzea, bai eta banaketa-sarera sartzeko eskaera Iberdrola enpresa banatzailearekin izapidetzea ere. Ordaindu beharreko gastuak, halakorik balego, Udalak ordainduko ditu.

Esleipendunak, hornidura muntatu ondoren, hornitutako osagaiei eta materialei, planoei, erabilera- eta mantentze-eskuliburuei, komunikazio-softwareari eta abarri buruzko dokumentazio tekniko guztia entregatu beharko du euskarri elektronikoan eta paperean.

Zerbitzuan jarri aurretik, gutxienez, honako egiaztapen hauek egingo dira:

- Sistema guztien funtzionamendua eta abiaraztea.
- Abiarazteko eta geldiarazteko probak funtzionamendu-une desberdinetan.
- Babes-, segurtasun- eta alarma-elementuen eta -neurrien probak, bai eta horien jarduketa ere.
- Instalatutako potentzia zehaztea.

Probak amaitu eta martxan jarri ondoren, instalazioa jasoko da. Hala ere, jasotze-akta ez da sinatuko hornitutako osagai guztiek 240 orduz jarraian behar bezala funtzionatu dutela egiaztatu arte, sistemaren akatsengatik gelditu gabe, eta eskatutako dokumentazio guztia entregatu dela egiaztatu arte.

I. ERANSKINA:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

1. Modulu fotovoltaikoak:

Modulu guztiek **UNE-EN 61215** arauak bete beharko dituzte silizio kristalinoko moduluetarako, bai eta baimendutako entsegu-laboretegiren batek ziurtatuta egon ere. Horretarako, dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Moduluak modu argian eta ezabaezinean eramango ditu fabrikatzailearen eredua eta izena edo logotipoa, baita identifikazio indibiduala edo fabrikazio-datan trazatu daitekeen serie-zenbakia ere.

Alboko markoak aluminiozkoak edo altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira, eta lurrera konektatuta egongo dira.

Modulu fotovoltaikoen produktuaren gutxieneko bermea 10 urtekoa izango da, eta 25 urteko potentzia-errendimendua.

Errendimenduaren gehieneko degradazioa urteko % 0,6 izango da, lehenengo 25 urteetarako.

Gehieneko potentzia negatiboaren tolerantzia +% 3 izango da.

Nolanahi ere, horniduraren instalazioa amaitutakoan, hornitutako modulu fotovoltaiko bakoitzaren benetako potentzia neurtua zehazten duen dokumentu bat entregatu beharko da.

Baztertu egingo da fabrikazio-akatsak dituen edozein modulu, hala nola hausturak edo orbanak edozein elementutan, baita zelulak lerrokatuta ez egotea edo kapsulatzailean burbuilak egotea ere.

2. Euskarri-egitura:

Euskarri-egiturek atal honetako zehaztapenak bete beharko dituzte. Kasu guztietan, Eraikingintzaren Kode Teknikoan segurtasunari buruz ezarritakoa beteko da.

Egitura, ahal dela, erresistentzia estruktural handiko aluminiozkoa edo plastikozkoa izango da, eta torlojuak altzairu herdoilgaitzezkoak. Erabilitako materialen kalitate-ziurtagiria aurkeztu beharko da.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Haize- eta elur-gainkargak jasan behar ditu egiturak, moduluak instalatuta dituela, Eraikingintzaren Kode Teknikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian adierazitakoaren arabera.

Egitura diseinatzeko, kontuan hartuko dira sorgailu fotovoltaikoak behar dituen orientazioa eta inklinazio-angelua, baita muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna eta elementuak aldatzeko izan daitekeen beharra ere.

Moduluak finkatzeko sistemak eta egituraren diseinuak eta eraikuntzak beharrezko dilatazio termikoak ahalbidetuko ditu, moduluen osotasunari eragin diezaioketen kargak transmititu gabe, fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz.

Modulu fotovoltaikoaren euste-puntuak nahikoak izango dira kopuruari dagokionez, euskarri-eremua eta posizio erlatiboa kontuan hartuta, moduluetan fabrikatzaileak eta modulu-eredurako homologatutako metodoek onartutako baino flexio handiagorik ez gertatzeko.

3. Inbertsoreak:


Sare elektrikora konektatzeko egokiak izango dira, eta sarrerako potentzia aldakorra izango dute, uneoro sorgailu fotovoltaikoak egunean zehar eman dezakeen potentzia maximoa ateratzeko gai izan daitezen.

Instalatu beharreko inbertsoreen eraginkortasun maximoa eta europarra ez da inoiz izango % 97 baino txikiagoa.

Inbertsoreek Segurtasun Elektriakoari eta Bateragarritasun Elektromagnetikoari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauak beteko dituzte (biak fabrikatzaileak ziurtatuko ditu), eta babesak izango dituzte honako hauetarako:

- Zirkuitulaburrak altxatzen.
- Sare-tentsioa mailaz kanpo.
- Sarearen maiztasuna mailaz kanpo.
- Gaintentsioak, baristore edo antzekoen bidez.
- Sarean dauden perturbazioak, hala nola mikromozketak, pultsuak, zikloen akatsak, sarearen gabezia eta itzulera, etab.

Inbertsoreek gutxienez IP 20 babes-maila izango dute eraikinen barruko eta leku iritsezinetako inbertsoreetan, IP 30 izango dute eraikinen barruko eta leku irisgarrietako



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

inbertsoreetan, eta IP 65, aire zabalean instalatutako inbertsoreetan. Edonola ere, indarrean dagoen legeria beteko da.

Inbertsoreak ingurumen-baldintza hauetan jarduteko bermatuta egongo dira: 0 °C-tik 40 °C-ra bitarteko tenperaturan eta % 0-85 bitarteko hezetasun erlatiboan.

Fabrikatzaileak gutxienez 5 urtez bermatuko ditu instalazio fotovoltaikoetarako inbertsoreak.

4. Monitorizazio-sistema:

Instalazio fotovoltaikoak monitorizazio telematikoko sistema bat izango du, sortutako eguzki-energiaren ekoizpenaren benetako egoera Internet bidez ikusteko.

Instalazio horiek udalaren sisteman integratzeko, inbertsoreen komunikazio-protokoloa eman beharko da, haietan biltegitratutako datuak eskuratu ahal izateko.

Gainera, ekipamenduekin komunikatzeko softwarearen berri emango da, eta, horren bidez, sistemak erregistratutako datu guztiak urrunetik irauli ahal izango dira.


Era berean, akatsen bat izanez gero, instalazioak alarmen bidez jakinaraziko die mantentze-lanetako arduradunei.

5. Babesak eta kableatua

Instalazioko kableatua kobre malgukoa izango da eta haren dimentsionamenduak (sekzioaren kalkulua) bermatuko du moduletatik eraikinaren barneko sarearekiko konexiorako tentsio-erortzea % 1,5 baino handiagoa ez izatea.

Erabilitako kableek indarreko araudia beteko dute isolamenduari eta babes-mailari dagokienez. Zehazki, 1000V-tik gorako isolamendua izango dute, halogenorik gabekoak izango dira eta isolamendu bikoitza izango dute (II. mota), aire zabalean, airetik edo lurperatuta erabiltzeko egokia, UNE 21123 arauaren arabera.

Segurtasun-arrazoiengatik eta sorgailuaren mantentze-lanak eta konponketa errazteko, sorgailuaren adar bakoitza eta gainerako zatiak deskonektatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak instalatuko dira (fusibleak, etengailuak, etab.), modu independentean eta bi terminaletan.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Ekipamendu eta aparatu bakoitzean identifikazio-etiketak jarriko dira, mantentze-lanak errazteko.

II. ERANSKINA:

GALDEKETA TEKNIKOAK

ENPRESA:

INSTALAZIOAREN DATU TEKNIKOAK

Puntako potentzia (Wp):

Modulu-kopurua:

Orientazioa:

Inklinazioa:

Galerak orientazioagatik (%):

Kokapena (bertikala/horizontala):

Lerroen arteko distantzia:

MODULUEN DATU TEKNIKOAK

Potentzia unitarioa (Wp):

Neurriak:

Potentzia maximoko tentsioa (Vmpp):

Potentzia maximoko korrontea (Impp):

Zirkuitu irekiko tentsioa (Voc):

Zirkuitulaburreko korrontea (Isc):

Potentzia-koefizientea (γ : %/°C):

Korronte-koefizientea (α : %/°C):

Tentsio-koefizientea (β : %/°C):

Potentzia-tolerantzia (%):

1. urtean bermatutako potentzia-errendimendua (%):

Potentziaren errendimendu-galera urteko (%):

INBERTSOREEN DATU TEKNIKOAK

Potentzia izendatua (kW):

Europako errendimendua (%):



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

PRODUKTUEN BERMEAK (Oharra: Eskaintza-kontratuaren behin betiko epetik aparte)

FV moduluen berme-urteak:

Inbertsoreen berme-urteak:

Euskarri-egituraren berme-urteak:

MATXURAK KONPONTZEA

Matxura jakinaraziz gero, arreta emateko gehieneko epea eta zerbitzu-mota:

- Funtzionamendua eteten bada:

- Funtzionamendua eteten ez bada:

MANTENTZE-LANETARAKO BALDINTZAK

Izan daitekeen mantentze-lanen zerbitzuaren ezaugarriak eta gainerako balorazioak (gomendatutako bisitak, plakak garbitzea...).

3. Kontratatu den horniduraren datuak.

Batetik, kontratu honetarako gehienez dagoen aurrekontua zein den, 14.810,00 € kontuan hartuta-, eta bestetik, horniduraren ezaugarriak zein diren jakinda, uste dugu prozedurarik egokiena kontratu txikia dela, beraren gutxi gorabeherako balioa [15.000 euro] [50.000 euro (2017ko SPKL, 54. Xedapen Gehigarrian ezarritako kasuen artean. 2018ko EAOLek gaineratu zion)] baino gutxiago direlako. Hona hemen kontratuaren datuak:

* Kontratuaren xedearen definizioa: LIZARTZAKO ESKOLAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea.

* Aurrekontua, gehienez: 12.239,67 € BEZa: 2.570,33 €. Guztira: 14.810,00 €.

* Iraunaldia: 3 Hilabete.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

* Horniduraren baldintzak: LIZARTZAKO ESKOLAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea.

4. Aurrekontu-aplikazioa: 1.0000.623.425.00.02.2020

5. Eskaintzak aurkezteko proposatutako enpresak:

EKISOLAR (INICIATIVAS DE TECNOLOGIA Y SOSTENIBILIDAD S.L.)

ALET TALDEA

TAPIA INSTALAZIO ELEK S.L.

Lizartzako Osasun Zentruan Autokontsumorako Eguzki Instalazio Fotovoltaiko bat Instalatzeko horniduraren Baldintza Pleguak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu dira.

LIZARTZAKO OSASUN ZENTRUAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT INSTALATZEA

1. Kontratazioaren xedea: LIZARTZAKO OSASUN ZENTRUAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea.

2. Asebeteko den beharra eta helburua: LIZARTZAKO OSASUN ZENTRUAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea, Baldintza Plegu hauen arabera:

LIZARTZAKO OSASUN ZENTRUAN ERAIKIN PUBLIKOAN AUTOKONTSUMORAKO HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Lizartzako Osasun Zentrua eraikin publikoaren eraginkortasun energetikora bideratutako plaka fotovoltaikoak hornitu, instalatu eta konektatzea, horien muntaketa eta abiaraztea barne (dagozkion planoak erantsi dira).

Proposatutako ekipamenduek bete beharko dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

I. ERANSKINEAN zehazten dira.

II. ERANSKINAREN bidez, proposamenaren datu teknikoak eskatzen dira.

Kontratu honen xede den horniduraren kodeketa, Europako Batzordearen CPV nomenklaturari (Kontratuen Hiztegi Komuna) dagokiona, 0933200-5 da: eguzki-instalazioa.

2.- APLIKAZIO-EREMUA

Instalazioek autokontsumo-erregimenean funtzionatu beharko dute, eta sarerako konexioa Iberdrolak zehaztutako puntuan egingo da.

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanek erantsitako planoetan agertzen diren eraikinen sarera konektatutako autokontsumoko instalazio guztiak hartzen dituzte, bai eta haien osagai guzti-guztiak ere.

3.- ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA ETA BETETZE-MAILA:

Enpresa lizitzaileei eskatuko zaie bakoitzak proposatutako elementu-ereduari buruzko ziurtagiriak aurkezteko, eta, dokumentu horietako edozein falta izanez gero, esleipen-prozeduratik KANPO geratuko dira.

Bereziki, dekretu eta arau hauek betetzea eskatzen da:

244/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena.

900/2015 Errege Dekretua, urriaren 9koa, energia elektrikoaren autokontsumoko hornidura- eta ekoizpen-modalitateen baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen dituena.

1699/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, potentzia txikiko energia elektrikoa ekoizteko instalazioen sarerako konexioa arautzen duena.

314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duena.

842/2002 Errege Dekretua, Behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena (2002-09-18ko BOE).



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Iberdrolaren araudi partikularra, NI eta MT arauak.

- CE marka, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/95/EE Zuzentarauaren arabera, tentsio-muga jakin batzuekin erabiltzera bideratutako material elektrikoari buruz estatu kideek dituzten legediak hurbiltzeari buruzkoa.

UNE-EN 61730, 2006/95/EE Zuzentzurako harmonizatua, modulu fotovoltaikoen segurtasunaren kualifikazioari buruzkoa.

UNE-EN 50380 araua, modulu fotovoltaikoetarako datu-orrien eta ezaugarri-plaken informazioei buruzkoa.

UNE-EN 61215 araua, Lurreko erabilerarako silizio kristalinozko modulu fotovoltaikoak (FV). Diseinuaren kualifikazioa eta homologazioa.

UNE-EN 62093: sistema fotovoltaikoen energia metatzeko, bihurtzeko eta kudeatzeko osagaiak. Diseinuaren kualifikazioa eta ingurumen-saiakuntzak.

UNE-EN 61683: Sistema fotovoltaikoak. Potentzia-egokitzailak. Errendimendua neurtzeko prozedura.

IEC 62116. Konpainia elektrikoaren sarera konektatutako inbertsore fotovoltaikoak. Sarean uharteen sorrera prebenitzeko neurrietarako saiakuntza-prozedura.

4.- ZERBITZUAN JARTZEA ETA BERMEAK

Esleipendunak bere gain hartu beharko ditu instalazioaren administrazio-baimena lortzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak. Haren betebeharra izango da instalazioa zerbitzuan jarri dela eta autokontsumoaren administrazio-erregistroan inskribatu dela egiaztatzen duten agiriak lortzea, bai eta banaketa-sarera sartzeko eskaera Iberdrola enpresa banatzailearekin izapidetzea ere. Ordaindu beharreko gastuak, halakorik balego, Udalak ordainduko ditu.

Esleipendunak, hornidura muntatu ondoren, hornitutako osagaiei eta materialei, planoei, erabilera- eta mantentze-eskiliburuei, komunikazio-softwareari eta abarri buruzko dokumentazio tekniko guztia entregatu beharko du euskarri elektronikoan eta paperean.

Zerbitzuan jarri aurretik, gutxienez, honako egiaztapen hauek egingo dira:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- Sistema guztien funtzionamendua eta abiaraztea.
- Abiarazteko eta geldiarazteko probak funtzionamendu-une desberdinetan.
- Babes-, segurtasun- eta alarma-elementuen eta -neurrien probak, bai eta horien jarduketa ere.
- Instalaturako potentzia zehaztea.

Probak amaitu eta martxan jarri ondoren, instalazioa jasoko da. Hala ere, jasotze-akta ez da sinatuko hornitutako osagai guztiek 240 orduz jarraian behar bezala funtzionatu dutela egiaztatu arte, sistemaren akatsengatik gelditu gabe, eta eskatutako dokumentazio guztia entregatu dela egiaztatu arte.

I. ERANSKINA:

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

6. Modulu fotovoltaikoak:

Modulu guztiek **UNE-EN 61215** arauak bete beharko dituzte silizio kristalinoko modulu-erako, bai eta baimendutako entsegu-laboregaren batek ziurtatuta egon ere. Horretarako, dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Moduluak modu argian eta ezabaezinean eramango ditu fabrikatzailearen eredu eta izena edo logotipoa, baita identifikazio indibiduala edo fabrikazio-datan trazatu daitekeen serie-zenbakia ere.

Alboko markoak aluminiozkoak edo altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira, eta lurrera konektatuta egongo dira.

Modulu fotovoltaikoen produktuaren gutxieneko bermea 10 urtekoa izango da, eta 25 urteko potentzia-errendimendua.

Errendimenduaren gehieneko degradazioa urteko % 0,6 izango da, lehenengo 25 urteetarako.

Gehieneko potentzia negatiboaren tolerantzia +% 3 izango da.

Nolanahi ere, horniduraren instalazioa amaitutakoan, hornitutako modulu fotovoltaiko bakoitzaren benetako potentzia neurtua zehazten duen dokumentu bat entregatu beharko da.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Baztertu egingo da fabrikazio-akatsak dituen edozein modulu, hala nola hausturak edo orbanak edozein elementutan, baita zelulak lerrokatuta ez egotea edo kapsulatzailean burbuilak egotea ere.

7. Euskarri-egitura:

Euskarri-egiturek atal honetako zehaztapenak bete beharko dituzte. Kasu guztietan, Eraikingintzaren Kode Teknikoan segurtasunari buruz ezarritakoa beteko da.

Egitura, ahal dela, erresistentzia estruktural handiko aluminiozkoa edo plastikozkoa izango da, eta torlojuak altzairu herdoilgaitzezkoak. Erabilitako materialen kalitate-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Haize- eta elur-gainkargak jasan behar ditu egiturak, moduluak instalatuta dituela, Eraikingintzaren Kode Teknikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian adierazitakoaren arabera.

Egitura diseinatzeko, kontuan hartuko dira sorgailu fotovoltaiakoak behar dituen orientazioa eta inklinazio-angelua, baita muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna eta elementuak aldatzeko izan daitekeen beharra ere.


Moduluak finkatzeko sistemak eta egituraren diseinuak eta eraikuntzak beharrezko dilatazio termikoak ahalbidetuko ditu, moduluen osotasunari eragin diezaioketen kargak transmititu gabe, fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz.

Modulu fotovoltaiakoaren euste-puntuak nahikoak izango dira kopuruari dagokionez, euskarri-eremua eta posizio erlatiboa kontuan hartuta, moduluetan fabrikatzaileak eta modulu-eredurako homologatutako metodoek onartutako baino flexio handiagorik ez gertatzeko.

8. Inbertsoreak:

Sare elektrikora konektatzeko egokiak izango dira, eta sarrerako potentzia aldakorra izango dute, uneoro sorgailu fotovoltaiakoak egunean zehar eman dezakeen potentzia maximoa ateratzeko gai izan daitezen.

Instalatu beharreko inbertsoreen eraginkortasun maximoa eta europarra ez da inoiz izango % 97 baino txikiagoa.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Inbertsoreek Segurtasun Elektroari eta Bateragarritasun Elektromagnetikoari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauak beteko dituzte (biak fabrikatzaileak ziurtatuko ditu), eta babesak izango dituzte honako hauek:

- Zirkuitulaburrak alternoan.
- Sare-tentsioa mailaz kanpo.
- Sarearen maiztasuna milaz kanpo.
- Gaintentsioak, baristore edo antzekoen bidez.
- Sarean dauden perturbazioak, hala nola mikromozketak, pultsuak, zikloen akatsak, sarearen gabezia eta itzulera, etab.

Inbertsoreek gutxienez IP 20 babes-maila izango dute eraikinen barruko eta leku iritsezinetako inbertsoreetan, IP 30 izango dute eraikinen barruko eta leku irisgarrietako inbertsoreetan, eta IP 65, aire zabalean instalatutako inbertsoreetan. Edonola ere, indarrean dagoen legeria beteko da.

Inbertsoreak ingurumen-baldintza hauek jarraitzeko bermatuta egongo dira: 0 °C-tik 40 °C-ra bitarteko tenperaturan eta % 0-85 bitarteko hezetasun erlatiboan.

Fabrikatzaileak gutxienez 5 urtez bermatuko ditu instalazio fotovoltaikoetarako inbertsoreak.

9. Monitorizazio-sistema:


Instalazio fotovoltaikoak monitorizazio telematikoko sistema bat izango du, sortutako eguzki-energiaren ekoizpenaren benetako egoera Internet bidez ikusteko.

Instalazio horiek udalaren sisteman integratzeko, inbertsoreen komunikazio-protokoloa eman beharko da, haietan biltegitutako datuak eskuratu ahal izateko.

Gainera, ekipamenduekin komunikatzeko softwarearen berri emango da, eta, horren bidez, sistemak erregistratutako datu guztiak urrunetik irauli ahal izango dira.

Era berean, akatsen bat izanez gero, instalazioak alarman bidez jakinaraziko die mantentze-lanetako arduradunei.

10. Babesak eta kableatua



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Instalazioko kableatua kobre malgukoa izango da eta haren dimentsionamenduak (sekzioaren kalkulua) bermatuko du moduluetatik eraikinaren barneko sarearekiko konexiorako tentsio-erortzea % 1,5 baino handiagoa ez izatea.

Erabilitako kableek indarreko araudia beteko dute isolamenduari eta babes-mailari dagokienez. Zehazki, 1000V-tik gorako isolamendua izango dute, halogenorik gabekoak izango dira eta isolamendu bikoitza izango dute (II. mota), aire zabalean, airetik edo lurperatuta erabiltzeko egokia, UNE 21123 arauaren arabera.

Segurtasun-arrazoiengatik eta sorgailuaren mantentze-lanak eta konponketa errazteko, sorgailuaren adar bakoitza eta gainerako zatiak deskonektatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak instalatuko dira (fusibleak, etengailuak, etab.), modu independentean eta bi terminaletan.

Ekipamendu eta aparatu bakoitzean identifikazio-etiketak jarriko dira, mantentze-lanak errazteko.

II. ERANSKINA:

GALDEKETA TEKNIKOA

ENPRESA:

INSTALAZIOAREN DATU TEKNIKOAK

Puntako potentzia (Wp):
Modulu-kopurua:
Orientazioa:
Inklinazioa:
Galerak orientazioagatik (%):
Kokapena (bertikala/horizontala):
Lerroen arteko distantzia:

MODULUEN DATU TEKNIKOAK

Potentzia unitarioa (Wp):
Neurriak:
Potentzia maximoko tentsioa (Vmpp):
Potentzia maximoko korrontea (Impp):
Zirkuitu irekiko tentsioa (Voc):



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Zirkuitulaburreko korronea (Isc):

Potentzia-koefizientea (γ : %/°C):

Korronte-koefizientea (α : %/°C):

Tentsio-koefizientea (β : %/°C):

Potentzia-tolerantzia (%):

1. urtean bermatutako potentzia-errendimendua (%):

Potentziaren errendimendu-galera urteko (%):

INBERTSOREEN DATU TEKNIKOAK

Potentzia izendatua (kW):

Europako errendimendua (%):

PRODUKTUEN BERMEAK (Oharra: Eskaintza-kontratuaren behin betiko epetik aparte)

FV moduluen berme-urteak:

Inbertsoreen berme-urteak:

Euskarri-egituraren berme-urteak:

MATXURAK KONPONTZEA

Matxura jakinaraziz gero, arreta emateko gehieneko epea eta zerbitzu-mota:

- Funtzionamendua eteten bada:

- Funtzionamendua eteten ez bada:

MANTENTZE-LANETARAKO BALDINTZAK

Izan daitekeen mantentze-lanen zerbitzuaren ezaugarriak eta gainerako balorazioak (gomendatutako bisitak, plakak garbitzea...).

3. Kontratutako den horniduraren datuak.

Batetik, kontratu honetarako gehienez dagoen aurrekontua zein den, 4.429,87 € kontuan hartuta-, eta bestetik, horniduraren ezaugarriak zein diren jakinda, uste dugu prozedurarik egokiena kontratu txikia dela, beraren gutxi gorabeherako balioa [15.000 euro] [50.000 euro (2017ko SPKL, 54. Xedapen Gehigarrian ezarritako kasuen artean).



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2018ko EAOLek gaineratu zion]] baino gutxiago direlako. Hona hemen kontratuaren datuak:

* Kontratuaren xedearen definizioa: LIZARTZAKO OSASUN ZENTRUAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea.

* Aurrekontua, gehienez: 3.661,05 € BEZa: 768,82 €. Guztira: 4.429,87 €.

* Iraunaldia: 3 Hilabete.

* Horniduraren baldintzak: LIZARTZAKO OSASUN ZENTRUAN AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT INSTALATZEA hornidura eskuratzea.

4. Aurrekontu-aplikazioa: 1.0000.623.425.00.02.2020

5. Eskaintzak aurkezteko proposatutako enpresak:

EKISOLAR (INICIATIVAS DE TECNOLOGIA Y SOSTENIBILIDAD S.L.)

ALET TALDEA

TAPIA INSTALAZIO ELEK S.L.

Lizartzako Osasun Zentruan Autokontsumorako Eguzki Instalazio Fotovoltaiko bat Instalatzeko horniduraren Baldintza Pleguak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu dira.

SEIGARRENA.- MOZIOAK

ORAIN ARDURA HERRITARREN EKIMENAREN MOZIOA

Nik, Miren Itziar Pou Mozos, 51383008L NAN zenbakiarekin eta Gesalaga kalea 22. Zestoa (Gipuzkoa) helbidearekin, "ORAIN ARDURA" herritarren ekimenaren izenean honako mozio hau aurkezten dut Udalaren aurrean:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Aste luzeetako sufrimenduaren ondoren, gure senideak erabateko bakardadean hil direnean, pandemiaren aurkako borrokan ospitaletako langileek lan-baldintza kaskarretan larrua utzi dutenean; egoerari aurre egin ahal izateko adinekoenegoitzetako langileek ezinezkoak egin dituztenean; arnasgailurik ez zegoenean gaixorik dauden pertsona guztientzat edo testak eta babes-ekipoak falta izan direnean, gizarteak egoera zail honen aurrean bultzatu dituen portaera eredugarriak azpimarratu nahi ditugu, kontaezinak izan baitira elkartasun ekimenekin.

Gizarteak erantzukizun handiz jokatzeko ar da krisi larri honetan, eta berak markatzen digu jarraitu beharreko bidea. Horregatik, etorkizun zalantzarriaren aurrean, erakundeak egoerak eskatzen duen mailan egon behar dira, erantzukizunez jokatzeko eta orain, inoiz baino gehiago, dirua oinarrizko gizarte-zerbitzuetara eta krisia bereziki pairatu duten sektoreentzako laguntzetara bideratzen. Honengatik guztiarengatik, "ORAIN ARDURA" ekimena bultzatu dugun pertsonak, elkarteak eta sindikatuek erakunde eta administrazio publikoei eskatzen diegu Abiadura Handiko Trenaren obra eta proiektuetan gastatzen ari diren funts publikoak oinarrizko behar horietara bideratzea, honako argudio hauetan oinarrituta:

Espainiako Estatuak munduan abiadura handiko treneko kilometroetan milioi bat biztanleko kilometro gehien duen estatua da, Japonia, Alemania, Frantzia, AEB eta beste hainbat herrialderen oso aurretik. Hala eta guztiz ere, azken tokian dago erabilerari dagokionez, eta kilometroko bidaiari-ratio baxuena du. Gainera, gogorarazi behar dugu sustapen ministerioaren datuen arabera, bidaiarien %6k baino ez duela erabiltzen habiadura handiko trena; ohiko trena, berriz, %94 erabilera du.

Gipuzkoan, 2020ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren arabera "Euskal Y"ko lanak lurraldean bukatzeko 540 milioi euro gastatu behar dira oraindik. Gainera, "Euskal Y" Iruñearekin lotzeko proiektua eginda dago eta ingurune-inpaktuen ebaluazioaren zain dago. Lotura hori Aralar zulatuz egingo balitz 2.000 milioi euro inguru kostatuko luke. Guztira, gainkostuak ez badira gertatzen, 2500 milioi euro. Krisi-une honetan, eta aurreikuspenak kontuan hartuta, garrantzitsua da diru guzti hori oinarrizko gizarte-premietara bideratzea.

Beraz eta adibide gisa, azpimarratu behar da "Euskal Y" eta Iruñea arteko AHTren lineak balio duenarekin, Aralar zulatuz eraikitzen bada, duela urte eta erdi inauguratu zen Eibarkoa bezalako 75 ospitale eraiki litezkeela. Gainera, kontuan hartu behar dugu, AHTren lineak eraiki ordez, gaur egungo trenbideak berri eta egokitu daitezkeela, kostu askoz txikiagoetan. Horrela herriak, hiriak eta industrialdeak lotzen dituen tren sozial bat izango genuke, pertsonak nahiz salgaiak garraiatzen dituen,



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

gune isolatuak utzi gabe lurraldea egituratzen dena eta edozein pertsonarentzat ekonomikoki eskuragarria dena.

Azpiegitura hauek milioi askotako inbertsioak eskatzen dituzte eta, bitartean, murrizketa handiak egin dira oinarrizko zerbitzuetan, hala nola, osasunean, hezkuntzan edo hainbat gizarte-zerbitzuetan. Hori dela eta, osasun-krisi izugarri honetan egunero ikusi ditugu ospitaleak gainezka, osasun-langileak txandak bikoizten, adinekoen egoitzak beren zorian abandonatuta, jendea bakardadean hiltzen, hotelak ospital bihurtuak, etxeetan maskarak eta kareta egiten, eta abar. Ezinbestekoa da azpimarratzea lan horietako gehienak emakumeek egin dituztela, kolektibo bera gizarte honek baztertu egiten duena. Beraz, pertsonen bizitzari eta elkarrekiko zaintzari eusteko ehar diren lanen garrantzia aitortu behar da, baina, zoritxarrez, alderdi horiek ere baztertu egiten dira aurrekontuen arloan.

Gainera, milioi askotako inbertsio horiek milaka lagunentzako laguntzak eragozten dituzte, bai negozio txikiei eusteko, bai langabezian dauden eta baliabide falta duten pertsonentzako laguntzak izateko, bai eskolak hobetzeko, bai irakaslearekiko ikasleen ratio txikiagoa izateko, besteak beste. Azken finean, sektore ahulenentzako eta, oro har, gizarte osoarentzako laguntzak murriztearen eta ezabatzearen kontura diru-kutxak husten dituzten inbertsioak dira.

Ildo horretan, uste dugu estatu osora zabaldu behar direla Isabel Pardo de Vera ADIFeko presidentearen jarduerak, otsailean Oviedo, Avilés eta Gijón abiadura handiko konexioa baztertu zuenean, "konexio horiek 10 minutu aurrezteko besterik ez luketelako izango, milioi askotako inbertsioarekin". Hari beretik, komeni da azpimarratzea Abalos ministroak esan zituen hitzen zentzudunak kargua hartu zuenean. Orduan gobernuaren apustu berria iragarri zuen: "tranbiderako inbertsioak erabat birbideratzea, urte askotan abiadura handian zentratuegiak egon direlako". Pedro Azpiazu, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuaren hitzak ere aipatu nahi ditugu; orain dela gutxi "gastu publikoa murriztu eta obra handiak atzeratu beharko liratekela" esan baitzuen.

Gaur egun, pertsona guztiek hitz egiten dute datorren krisi latzaz eta zerba-bilketa %20 jaitsiko dela esaten dute. Orain, ekoizpena birkokatzearen eta mugikortasuna murriztearen aldeko apustua egiten ari garenean, ezin dugu jarraitu ezer gertatzen ariko ez balitz bezala.

Ondorioz, krisi sozial eta ekonomikoko une hauetan, AHTrako inbertsio ekonomiko guztia premiazko eta lehentasunezko gaitara bideratzea eskatzen dugu. Hala nola, behar adina langile eta baliabide dituen osasun publikoko sistema batera; adinekoen,



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

mendekoen eta beraiez arduratzen dituztenen kalitateko zainketara; bidezko pentsioetara; pertsona guztientzako oinarritzko diru-sarreretara; kalitatezko hezkuntza publikora; kalitatezko gizarte-zerbitzuetara; zainketen balorizaziora; edo Covid-19aren krisiak larriki kaltetutako sektoreetako pertsonak babestera, besteak beste, merkataritza txikia, kulturaren mundua, eta abar.

Osoko Bilkurarei proposatzen zaio:

- 1.- Udal honek, Euskal eta Espainiako gobernuei eskatzea krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko handitu ditzatela oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako eta krisiak eragindako sektoreentzako laguntzetarako aurrekontu-partidak; eta, horretarako, Abiadura Handiko Trenaren obretarako eta proiektuetarako erabiltzen diren funts publikoak erabil ditzatela, horrenbestez, obra eta proiektu horiek geldiarazi egin beharko lirakeelarik.
- 2.- Hartutako erabakien berri ematea Espainiako Gobernuako Sustapen ministroari, Euskal Gobernuari eta komunikabideei.

“ORAIN ARDURA” herritarren ekimenaren mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ZAZPIGARRENA.- BESTELAKOAK

Horrenbestez, adierazitakoa dagozkion helburuetarako jasota gera dadin, idazki hau egin dut Lizartzan, bi mila eta hogeiko ekainaren hogeita hamarrean, alkatearen oniritziarekin, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duenak, 206. artikuluan jasotako salbuespena kontuan harturik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpi t'erdietan etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia